

«Harro nago Tolosako inauterien historian parte hartzen utzi didatelako»

Donostiarra da, baina aspaldidanik du lotura Tolosako herriarekin. Inauterietako kartelak berak egin ditu beti, 1969. urtetik. Egun hauetan, inauterietako kartel horiek guztiak Aranburu jauregian daude ikusgai.

...

Tomas Hernandez Mendizabal donostiar margolaria Tolosarekin eta hemengo inauteriekin izan duen harremanaren berri eman digu. 60ko hamarkadan hasi zen harreman hori, eta urteotan, lagun handiak egin ditu Tolosan.

■ Nola hasi zen zure harremana Tolosako inauteriekin?

60ko hamarkadan joan nintzen lehen aldiz Tolosara, lagunekin, inauteriez goatzera. Artista bezala pixka bat geroago iritsi zen guztia: Donostiako Mendekosteko desfilean, Antxon Elosegik ezagutu nuen. Tolosan Ekinbide Etxea sortzeko lanean ari ziren, eta Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetatik lagundu egiten genien. Lagun handiak ditut Tolosan: Antxon bera, Miguel Artetxe, Mixel Perales... Adiskidetasun horien ondorioz sortu zen Tolosarekin dudaren harremana.

■ Inauterietako kartela margotzeko proposamena ere Antxon Elosegik egin zizun?

Bai, solasaldi baten fruitua izan zen. Antxoni bururatu zitzaion nik egin nezakeela kartela, eta baietz esan nion. Harrezkero, urtero jarraitu dut egiten. Eta jarraituko dut, Tolosako herriak uzten didan arte.

■ Nola ikusten ditu Tomas Hernandezek Tolosako inauteriak?

Betidanik deitu dit atentzioa jendeak nola hartzen duen par-

Tomas Hernandez Mendizabal

... Margolaria



te. Herri guztia inplikatzeko da: emakumezkoak, gizonezkoak, gazteak, helduak... Oso herrikoia dira Tolosako inauteriak. Eta hori oso polita da.

■ Sentipen horren isla dira zure kartelak?

Baietz esango nuke. Garrantzitsuena festak barrutik bizitzea da. Parte hartzen saiatu izan naiz beti, eta hori da azaltzen dudana. Nire bizipenek eta Tolosako inauteriek esaten didatena jasotzen dira nire karteletan.

■ Badago urtero errepikatzen den motiboren bat?

Zezena beti izan behar da gogoa, Tolosako inauterietan oso garrantzitsua baita. Txistulariak ere azaltzen dira askotan. Eta arlekina, inauterietako ikurra.

TOLOSAKO INAUTERIAK

«Herri guztia inplikatzeko da; festa herrikoia dira, eta hori oso polita da»

■ 1969an hasi zinen Tolosako inauterietako kartelak egiten. Orain, 33 urteko lan hori jasotzen du erakusketa batek Aranburu jauregian. Norena izan zen proposamena?

Nire kartelak Gure Kaiola elkartearen inauterietako argazki eta jantziekin batera daude ikusgai. Betidanik izan dut erlazioa elkarte horretako jendearekin, ez bakarrik inauterietan. Denon artean sortu zen ideia.

■ Liburua ere argitaratu duzu kartel guztiekin. Tolosako inauteriaren historian zati oso garrantzitsua direla esan daiteke.

Berezia da niretzat Tolosako herria, eta oso harro nago festa horren historian parte hartzen utzi didatelako. Hori bai, nire ikuspuntutik azaldu dut beti inauteria; eta herri honetan, inon baino argiago, oso zabala eta askotarikoa da festa.

euromutua
ASEGUROAK

- Zure etxe berriarentzat ASEGURU DEZENALA
- Baserritarrentzako produktu bereziak


Gudari kalea z/g • Tel.: 943 65 22 20 • 20400 TOLOSA



VITALICIO
ASEGURUAK

- Arrisku aseguroak
- Istripu eta bizitza aseguroak
- PENSIO PLANAK

Partikular eta enpresentzako aseguruetan espezialistak gara
Poeta Lizardi 1, baxua • Tel.: 943 65 37 46 • 20400 TOLOSA



ISASTEGI
sagardotegia

Aldaba-Txiki auzoa, 15 A • Tel.: 943 65 29 64 • TOLOSA

Xirimiri
TXOKOLATEGIA

Gosariak eta Meriendak

Errementari, 40 TOLOSA 943 675223 tel.

AUSIN
ITURGINTZA

- ▼ Berogailuak
- ▼ Saneamendua
- ▼ Kristaldegia
- ▼ Gas instalazioak

Plaza Berria, 2 - Tolosa
Tel.: 943 67 04 49